

4.DIRU-SARRERAK

Hasierako inbertsiorako dirua gure familiaren herentziatik aterako dugu laurok arrebak garelako eta ados jarri gara inbertsio hau egiteko.

Gainera gure aititea Barrikako hondartzaren sarreran zeukan lur saila erabiliko dugu gure lokala kokatzeko.

Proiektuari hasiera emateko eta sozietatearen kapital soziala eratzeko (2.000.000 euro), bazkide bakoitzak diru kantitate zehatz bat ordainduko du (500.000 euro).

Gure lokalak bi zerbitzu ezberdin eskainiko ditu eta horietatik lortuko ditugu diru sarrera nagusienak.

Sarrera totaletik, jatetxetik %60a ateratzea zenbatetsi dugu eta diskotekatik %40a.

Beheko pisuan, afariak prestatuko ditugu. Goiko pisuan, musika eta barran, edariak eskainiko ditugu.

Afariaren menuaren prezioa 15 euro izango dira. Menu honetan kalitateko plater konbinatuak prestatuko ditugu (haragia, arraina, pasta, barazkiak, oilaskoa...)

Barraren edarien prezioak hauek izango dira:

Kopa alkoholdun konbinatua 8 euro

Garagardo pinta: 3 euro

Freskagarria: 3 euro

Estimatutako bezeroak bi jardueren artean 1500 pertsonakoa izango da hilabete bakoitzean., eta lortuko dugun fakturazioa 27.000€ bataz bestez.